

COVID PATRUILA KARTA JOKOAK

BILATU app BIKOTEA

BIRUSAK & GERMENAK - Birusak germen mota bat gara. Zuen inguruan gauden organismo txikiak gara, baina hain gara txikiak, ezin gaituzuela ikusi. Zuen gorputzean sartzen garenean, zuek infektatzea lortzen dugu eta gaixotu egiten zaituztegu.

COVID POZIK & KALTETUTAKO ZELULAK - birusok zelulak infektatu behar ditugu ugaltzeko. Zelula asko infektatzea lortzen badugu, pertsonak gaixotzea lortzen dugu.

COVID & GAIXO - Covid19a batez ere sukarra, eztula eta nekea sortarazten dituen birusa naiz. Batzuetan beste sintoma desberdin batzuk ere eragiten ditut, hala nola usaimena edo dastamena galtzea, digestio-arazoak eta abar.

SISTEMA IMMUNITARIOA & COVID HILA - giza gorputzaren barruan germenaren aurka borrokatzen duen eta haiengandik defendatzen gaituen gudaroste bat gaude. Gudaroste hau, globulu zuriek edo leukozitoek osatzen duguna, immunitate-sistema gara.

LINFOZITOAK & SOLDADUA - Giza gorputzak duen gudarostearen artean, soldadu mota ezberdinak gaude. B eta T linfozitoak soldadurik bizkorrenak gara, etsaia (birusa) aztertu eta hari aurre egiteko neurriko armak egiten baititugu. Neurria egindako arma hauek antigorputzak dira. Horien bidez, birusa garaitu eta gaixotasunetik erreperatzea lortzen dugu, eta, gainera, soldaduok memoria handia dugunez, birusak berriro kutsatzen bagaitu, berehala ateratzen ditugu neurria ditugun armak, eta jada ez gara gaixotzen.

TXERTATUTAKO HAURRA & ANTIGORPUTZA - Txertoa jartzen dugunean, gure gorputzean birusaren zatitxo bat sartzen dute, B eta T soldadu linfozitoek armak neurria edo antigorputzak sortzen ikas dezaten; horrela, birusak kutsatzen bagaitu, soldadu hauek berehala aterako dituzte neurria egindako armak, eta ez gara gaixotuko.

TXERTOAK & TXERTOAREN ALBO-ONDORIOAK - Covid19 txertoa jaso ondoren, baliteke gure gorputzean eraginen bat agertzea. Nagusia besoko mina da. Baina batzuetan sukarra, nekea, buruko mina, giharretako mina edo hesteetako arazoak ere izan ditzakegu.

TXERTATZEKO LERROA & IMMUNITATEA - Pertsona gehienok txertatzea lortzen badugu (pertsonek % 85 inguru, COVID-19ren kasuan), artaldearen edo taldearen immunitatea deritzona lortuko dugu. Horrek esan nahi du hainbeste pertsona txertatuta daudela, birusak pertsonen artean zirkulatzeko zailtasun handiak izanen dituela, eta, beraz, zabaltzeko aukerak oso txikiak izanen direla.

BEHIA & TXERTOAK – XVIII. mendearen amaieran, Edward Jenner izeneko mediku ingeles bat gauza harrigarri batez ohartu zen: gu behiekin lan egiten zuten pertsonak, ez ziren baztangaz kutsatzen, garaiko gaixotasunik hilgarrienetako bat. Hau gertatzen zen behiek gizakiei kutsatzen genien behi-baztanga moduko bat genuelako, eta haiek gaixotu egiten ziren baztanga honekin, gizakiena bezain larria ez zena, eta gero ez ziren kutsatzen giza baztangaz. Beraz, pertsonen behi-baztanga hori xiringatzea bururatu zitzaion, giza baztangaz gaixotu ez zitezen. Tratamendu prebentibo horri txertoa deitu zitzaion, gu izan baikinaren haren jatorria.

PASTEUR & LABORATEGIA - Txertoen ezagutaraztea, hein handi batean, niri zor zait: Louis Pasteur kimikari frantziarra naiz. Nire aurkikuntzei esker, infekzio-gaixotasunak sendatzeko eta desagerrarazteko metodo eraginkorrak garatu ziren: txertoak, antibiotikoak, esterilizazioa eta higiena.